

CUADERNOS ORKESTRA

63/2020

ISSN 2340-7638

EKONOMIA ETA  
GIZARTE DIGITALAK  
EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOAN.  
DESI 2019

*LABURPEN EXEKUTIBOA*

**Agustín Zubillaga Rego**  
**Carla Peletier Espiga**

2020

Cuadernos Orkestra, núm. 63/2020

© Agustín Zubillaga Rego, Carla Peletier Espiga  
© Instituto Vasco de Competitividad – Fundación Deusto

[www.orquestra.deusto.es](http://www.orquestra.deusto.es)



## EKONOMIA ETA GIZARTE DIGITALAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN. DESI 2019


Hirugarren urtez aurkezten dugu Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia eta Gizarte Digitalaren Indizea, DESI (*Digital Economy and Society Index*). Txosten honetan Euskal Autonomia Erkidegoko emaitzak aurkezten ditugu eta gure erkidegoak Europar Batasuneko Estatu kideekin alderatuta duen kokapen erlatiboa erakusten dugu. Gainera, aurten lehenengo aldiz, Europako bigarren adierazle digital bat kalkulatu dugu, Emakumeak Digitalean indizea (*Women in Digital*, WiD). Indize hori ere Europako Batzordeak prestatu du, emakumeak ekonomia eta gizarte digitaletan duen parte hartzea neurtzeko eta haren jarraipena egiteko. DESIren antzera, WiD indizeak Europar Batasuneko herrialdeen diagnostikoa ematen digu eta, horretan oinarrituz, herrialdeak alderatu eta sailkatzeko aukera izango dugu. Une jakin batean emakumeak esparru digitalean duen presentzia handiagoa edo txikiagoa islatzeaz gainera, errealitate hori neurtzeko metodo sendo eta sistematiko bat edukitzearen azken helburua da ebaluatzea egiten diren ahaleginek zein neurritan lortzen duten genero arrakala gutxitzea, argi baitago arrakala hori egon, badagoela. Hain zuzen ere, arrakala gero eta txikiagoa izatea nahi bada, emakumea esparru digitalean gero eta gehiago sartzea sustatu beharko da.

2019ko DESIak aurreko urteetako bost dimentsio berberak aztertzen ditu: konektagarritasuna, giza kapitala, Interneteko zerbitzuen erabilera, teknologia digitalaren integrazioa eta zerbitzu publiko digitalak. Azpidimentsio eta adierazleen egituran ere ez dago inolako aldaketarik. WiD indizeak, bestalde, adierazle kopuru txikiagoa aztertzen du, hiru dimentsiotan multzokatuta: Interneten erabilera, Internet erabiltzeko gaitasunak eta gaitasun espezializatuak eta enplegua.

Jarraian, bi indizeetan lortutako emaitzak erakusten dira.

2019. urtean, DESI indizearen balioa % 63,61 izan da EAEn. EB-28ko herrialdeen sailkapenean, bosgarren tokian egongo litzateke. Herrialde horien batez besteko balioa % 52,49 da.


1. grafikoa DESI 2019 (%)



*Iturria:* EUROSTAT, Merkatuen eta Lehiaren Espainiako Batzordea, Ekonomia eta Enpresa Ministerioa, EUSTAT, Espainiako Estatistika Institutua

Bestalde, emakumeak EAEko gizarte eta ekonomiaren digitalizazioan duen parte hartzeari dagokionez, EAE zortzigarren tokian dago, WiD indizearen balioa % 56,60 baita. EB-28ko batezbestekoaren gainerik gelditzen da (% 50,04).

2. grafikoa WiD 2019 (%)



Iturria: EUROSTAT, EUSTAT eta Espainiako Estatistika Institutua

2019. urteko emaitzez gainera, azken hiru urteetako bilakaera ere aztertu dugu, 2017az geroztik izan diren aurrerapenak eta atzerapenak ikusteko, DESI 2019ko aldaketa metodologikoak kontuan hartuta. Azterketa horretatik hainbat ondorio atera ditugu.

- Orain arteko lorpenak sendotzea eta lider digitalengana hurbiltzeko bidean aurrera egitea

EAE bosgarren tokian dago ekonomia eta gizartearen digitalizazioan, Europar Batasuneko herrialdeen sailkapenean, DESI indizea kontuan hartuta. Antzera zegoen 2017an eta 2018an ere. Sailkapeneko lehenengo tokietan Iparraldeko herrialdeak daude eta haiek baino koska bat atzerago dago EAEn, baina, hala ere, gero eta azkarrago ari da haietara hurbiltzen. Gainera, sailkapeneko hurrengo herrialdearekin, 2019an Erresuma Batuarekin, tartea badu. Beste pauso bat emateko, beharrezkoa izango da hobetzeko tarte handiagoa duten adierazleetan aurrera egitea.

Bosgarren toki hori hiru dimentsiotan oinarritzen da nagusiki: konektagarritasun oso ona, zerbitzu publiko digital aurreratua eta enpresetan teknologia digitalaren integrazio nabarmena. Aitzitik, azken urte honetan behera egin du giza kapitalaren mailak, bai EAEn eta bai EB-28 osoan. Herritarren zerbitzu digitalen erabilera du EAEn atzerapenik handiena eta, nahiz eta hobera egin, Europar Batasuneko batezbestekoaren azpitik jarraitzen du.

Bestalde, EAEn emakumeek digitalizazioan duten parte hartzea ertaina da, WiD indizeak erakusten digunaren arabera. Adierazle horri begiratuta, EAE EB-28ko sailkapenean zortzigarren tokian dago. Haren aurretik daude Eskandinaviako herrialdeak (Finlandia, Suedia eta Danimarka), Herbehereak eta baita Luxenburgo, Erresuma Batua eta Estonia ere. Azken hiru herrialde horiek DESIn EAEn atzetik daude. WiD indizea 2018an sortu zuen

Europako Batzordeak eta genero estereotipoen aurre egitea eta emakumeen gaitasun digitalak, hezkuntza eta ekintzaitza sustatzea ditu helburu.

Bi indizeak (DESI eta WiD) batera hartuta, esan dezakegu EAEko ekonomia eta gizartearen digitalizazioa aurrera doala, nahiz eta emakumeek esparru digitalean duten parte hartzea gizarte osoaren azpitik egon. Hori ikusirik, esan daiteke hazteko aukerak badituela.

- Dimentsio, azpidimentsio eta adierazleen bilakaera positiboa 2018 eta 2019 urteen artean

Azken urtean, EAEko DESI indizearen balioa % 5,41 handitu da. Hobekuntza, gainera, maila guztietan ikusten da. Lehenengo, ia dimentsio guztietan (bostetik lauretan) aurrerapausoak eman dira: konektagarritasunean (% 8,45), zerbitzu publiko digitaletan (% 7,31), Interneten erabileran (% 6,12) eta teknologia digitalak enpresan integratzerakoan (% 5,74). Neurri batean, aurrerapauso horiek ekarri dute EAEk sailkapenetako kokapena hobetzea. Baina atzera egiten du giza kapitalean (-% 0,17). Horixe bera gertatu da Europar Batasuneko gainerako herrialdeetan ere, ziur aski, dimentsio hori neurtzeko metodologia aldatu delako, Europako erakundeek Merkatu Digital Batuko gaitasunen eta kualifikazioen inguruan dituzten erronketara egokitzeko.

Era berean, azpidimentsioei dagokienez, hobekuntza nabari da indizea osatzen duten hamalau azpidimentsiotatik hamaikatan. Gainera, aurrerapenak atzerapenak baino askoz ere handiagoak dira. Azpidimentsio horiek lau multzotan bil ditzakegu: aurreratutak eta aurrera egiten dutenak, lider iraunkorrak, aurreratutak baina atzera egiten dutenak, eta atzean gelditzen ari direnak.

Banakako adierazleei dagokienez ere, bilakaera antzekoa da: berrogeita hiru adierazletatik hogeita zazpi<sup>1</sup> hobera egin dute, zortzitan egoerari eutsi egin zaio eta beste zortzitan atzera egin da. Adierazleak hainbat multzotan sailka ditzakegu: (i) "aurreratutak eta aurrera egiten dutenak", lider direnak edo aurreko tokietan tinko irauten dutenak (banda zabal finko eta azkarraren ezarpena, banda zabal mugikorraren estaldura, gizarte hedabideak...); (ii) "aurreratutak baina atzera egiten dutenak", toki onetan edo ertainetan badaude ere, kokapen erlatiboetan atzera egiten dutenak (enpresentzako zerbitzu publiko digitalak, hodeiko teknologiaren erabilera, banda zabal azkarraren eta ultra azkarraren estaldura, makrodatuak...); eta (iii) "adierazle potentzialak", sailkapenean erdialdean daudenak eta aztertzen ari garen aldi bere horretan geratzen direnak edo hobera egiten dutenak ("onlineko" zerbitzuak burutzea, gobernu elektronikoaren erabilgaitzak...). Horiez gainera, beheko aldean, bi portaera multzo ikusten dira: (iv) "atzeratutak eta atzera egiten dutenak", atzeko tokietan daudenak, eta, gainera, atzera egiten dutenak (IKTetan espezialistak diren emakumeak, datu irekiak, "online" saltzen duten enpresa txiki eta ertainak, "onlineko" salmentak...); eta (v) "atzeratutak baina hobera egiten dutenak", atzeko tokietan egonik, hobera egiten ari direnak (merkataritza elektronikoaren bolumena, mugaz haraindikoa ere barne hartuta, IKTetako espezialistak, albisteak..).

- DESI indizearen eta haren oinarrian dauden dimentsioen aurrerapena 2017-2019 aldian

Ikuspegi zabalagotik, DESI adierazlea EAEn hiru urtez kalkulatu ostean, esan dezakegu bere balioa etengabe joan dela handitzen. Batez besteko hazkunde tasa haztatua % 4,41 izan da, eta azpimarratzekoa da azken urtean tasa horrek izan duen azelerazioa.

Hiru urte hauetan, hiru dimentsiotan ikusten dira batez besteko hazkunde haztatu nabarmenak: konektagarritasunean (% 6,72), Interneten erabileran (% 4,34) eta zerbitzu publiko digitaletan (% 3,89). Adierazle horien hobekuntza prozesua bizkortu egin da. Giza kapitalean ere aurrera egin da, 2018an % 0,62 atzera egitetik aurreko atzerapena % 0,17 besterik ez baita izan. Azkenik, teknologia digitalaren integrazioan

<sup>1</sup>"5G sarerako prestatuta egotea" adierazle berria ez dugu kontuan hartu aldi osoko analisian.

ikusten zen hobekuntza moteldu egin da (2018an % 10,34 haztetik 2019an % 5,34 haztera igaro da). Hala ere, bi urte hauetan batez besteko hazkunde tasa haztatua % 8,35 izan da.

Hiru urteak hartuta, hamalau azpidimentsiotatik hamaikatan egin da hobera; beste bitan, atzera egin da; eta bakarrean eutsi zaio. Dimentsioak lau multzotan sailka daitezke: liderrak, aurrerratu hegazkorrak, atzeratu egonkorrak, eta atzera egiten duten atzeratuak.

Era berean, banakako hogeita hamahiru adierazletan, hobera egin da edo aurreko egoerari eutsi ahal izan zaio; hamarretan, ordea, atzera egin da. Adierazleen sailkapen berbera erabiliz, taldeak honakoak izango lirateke: (i) "aurreratuak eta aurrera egiten dutenak", adierazle horietan EAE liderra da edo oso aurrean dago eta, gainera, aldi honetan kokapen horri eutsi dio edo hobera egin du (banda zabal mugikorraren estaldura, banda zabal finko eta azkarraren ezarpena, enpresentzako zerbitzu publiko digitalak, "onlineko" ikastaroak, makrodatuak...); (ii) "aurreratuak baina atzera egiten dutenak", egoera ona izanik ere, EAE beste herrialde batzuek gainditu dute (hodeiko teknologien enpresa erabilera, banda zabal ultra azkarraren ezarpena eta estaldura); (iii) bi talde horiei lotuta, "adierazle potentzialen" taldea azpimarratu behar dugu, kokapenean aurrera egiten dute edo eutsi egiten diote, baina oraindik ere tarteko tokietan daude (banda zabal finkoaren estaldura, zerbitzu publiko digitalak burutzea, IKTetan espezialistak diren emakumeak, internet inoiz erabili ez duten pertsonak...); eta, azkenik, emaitza apalenetako adierazleei dagokienez, (iv) "atzeratuak eta atzera egiten dutenak", hau da, aurrera egiterik lortzen ez dutenak eta, gainera, atzera ere egiten dutenak (datu irekiak, salmenta elektronikokoak egiten dituzten enpresa txiki eta ertainak, "onlineko" erosketak...) eta (v) "atzeratuak baina hobera egiten dutenak", hau da, sailkapenean atzeko tokiak hartzen dituztenak baina hobera egiten dutenak ("onlineko" banka, IKTetako espezialistak, merkataritza elektronikoen negozio bolumena, "onlineko" salmentak...).

- Hobekuntza erlatiboa vs sailkapeneko aurrerapena

2018an ikusi zen bezala, agerian geratzen da dimentsioetan hobekuntzak gertatuta ere, ez dela bermatzen urteko kokapenean aurrera egitea. Hala, ikusten da % 3aren azpiko hazkundeek kokapenean atzera egitea ekartzen dutela; % 3 eta % 6 artekoek, kokapenari eustea; eta soilik % 6tik gora lortzen da dimentsioen sailkapenean aurrera egitea. Era berean, ehuneko hazkunde berarekin, 2019an kokapenetan hobekuntza handiagoak lortzen dira. Hortaz, hobera egiten laguntzen du horrek.

- Adierazleak aztertzea, hazkunde digital orekatuagoa lortzeko

Adierazleen bilakaera xehetasun handiagoz aztertuz, ikus daiteke EAEn emaitza oneko adierazleak emaitza txarreko adierazleak baino gehiago direla.

"Aurreratuak eta aurrera egiten duten" adierazleen multzo sendoa dugu eta azken urtean ere aurrekoen bide beretik jarraitu dute, beraz, beren egoera ona sendotu dute ("onlineko" ikastaroak, gizarte hedabideak, banda zabal mugikorraren estaldura...). Egoera horretan hamabi adierazle daude eta azken urtean beste hiru gehitu behar zaizkie, aurreko urteetan "aurreratuak baina atzera egiten dutenak" multzoan egon direnak ("onlineko" bozketak edo kontsultak, oinarritzko mailako gaitasun digitalak, eta aldeztu aurretik beteta dauden formularioak). Alderantziz, orain arte "aurreratuak" multzoan egon diren bi adierazle (enpresentzako zerbitzu publiko digitalak eta makrodatuak) "atzera egin duten" adierazleen multzora igaro dira azken urtean.

Adierazleen laugarren multzoan, "atzeratuak baina hobera egin dutenak" (banda zabalaren prezioaren indizea, "onlineko" banka, IKTetako espezialistak, merkataritza elektronikoen negozio bolumena, mugaz haraindiko salmenta elektronikokoak eta "onlineko" salmentak) aldi osoa kontuan hartuta, soilik "onlineko" salmentak igaro dira, azken urte honetan, "atzeratuak eta atzera egin dutenak" multzora. Beste noranzkoan, hau da, "atzeratuak eta atzera egiten dutenak" multzoan egotetik "atzeratuak baina hobera egiten dutenak" multzora



igaro direnak, azken urtean nabarmentzekoak dira “onlineko” erosketak, albisteak, gizarte sareak eta gutxienez oinarrizko “software” gaitasunak.

EAE lider da hainbat adierazletan, baina bilakaera horretan aurrera egiteko, etengabe eman behar ditu aurrerapausoak. Hobera egiten duten adierazleen artean daude enpresentzako zerbitzu publiko digitalen eragina edo gizarte hedabideak. Ildo beretik, adierazle potentzialak indartzeko lan egin daiteke, aurreratu “bihurtzeko” eta, horrela, indizearen emaitza orokorra hobetzeko. Adierazle potentzial horien adibide izan daiteke oinarrizko mailatik gorako gaitasun digitalak, zerbitzu publiko digitalen konplexutasuna, gizarte sare profesionalak edo Interneteko erabiltzaile ez direnak.

Gainera, adierazleak indartu ahal izateko, datu irekiek eta enpresa txiki eta ertainen salmenta elektronikoen arreta berezia eta tinkoa merezi dute, baita “onlineko” erosketek eta oinarrizko “software” gaitasunek ere, horien guztien maila apala baita, bai aldi osoa kontuan hartuta eta bai azken urteko datuei erreparatuta. Era berean, hobera egiten ari diren adierazle atzeratuei ere lagundu behar zaie; horien artean daude “onlineko” salmentak edo merkataritza elektronikoen negozio bolumena.

- Emakumeek ekonomia eta gizarte digitalean duten parte hartzearen aurrerapena apala da

WiD indizeari dagokionez, Interneten erabileran, gaitasun espezializatueta eta enpleguan ikusten diren balioetan EAE Europako batezbestekoaren gainetik dago. Internet erabiltzeko gaitasun orokorretan, ordea, euskal emakumeak Europako azpitik daude.

Azken urtean, 2018. urtearekin alderatuta, WiD indizearen eta indize horren dimentsioen hazkundeak txikiak izan dira. Hala, ia ez da aurrerapenik nabaritzen EAEk EB-28ko herrialdeekin alderatuta hartzen duen kokapenean.

WiD indizeak 2018az geroztik izan duen bilakaera ikusirik, esan daiteke EAEn emakumeek ekonomia digitalean duten parte hartzea aldatu egiten dela indizearen dimentsio batzuetatik besteetara: gaitasun aurreratueta eta Interneteko zerbitzuen batez besteko erabileran maila ona da; baina Internet erabiltzeko oinarrizko gaitasunetan hobetzeko asko dago. Hiru oinarriak harmonizatzek lagunduko dute emakumeek trantsizio digitalean parte hartze orekatuagoa edukitzen.

Dimentsioei dagokienez, Interneten erabilerari begira, EAE zortzigarren tokian dago: % 3,38 egin du hobera, baina 2018ko tokiari eusten dio. Aitzitik, emakumeek Internet erabiltzeko dituzten gaitasun orokorrei dagokienez, EAE hemezortzigarren tokian dago, Europako batezbestekoaren azpitik. Eta, azkenik, gaitasun espezializatueta enplegu teknologikoaren dimentsioan, EAEko emakumeak zazpigarren tokian daude. Beste lanbide batzuekin alderatuta, esanguratsua da emakumeen STEM espezializazio handia.

- Emakumeen ikuspegia digitalizazioan txertatzeak lagunduko du genero desberdintasun digitala gutxitzen

Bi adierazleen (DESI eta WiDen) arteko harremana aztertzen badugu, EAEko gizarte eta ekonomia osoaren emaitzak hobetzeko, beharrezkoa da emakumeek Interneten erabileran duten parte hartzea hobetzea (lanbideari lotutako gizarte sareak, “onlineko” bozketetan eta kontsultetan parte hartzea, “online” egiten diren ikastaroak). Emakumeen parte hartzea hobetzeak lagundu dezake dimentsio hori EAE osorako hobetzen eta, bide batez, DESI indizean emaitza hobeak lortzen. Gainera, Interneterako sarbidean genero arrakala nabarmen murrizten bada ere, emakumeentzat emaitza nahiko apala da.

Generoaren analisi alderatua eginez, Interneten erabilerari dagokionez, emakumeek emaitza hobeak duten adierazleetan (Interneten erabileran, gobernu elektronikoa eta “onlineko” bankarena), EAEn murrizten ari da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna.

Emakumeen maila apalagoa den espazioetan ere (lanbideko gizarte sareak, Interneteko sarbiderik eza eta “onlineko” ikastaroak), EAEn desberdintasuna Espainian eta Europako gainerako herrialdeetan baino azkarrago ari da gutxitzen. Aitzitik, emakumeek bozketetan edo kontsulta prozesuetan duten parte hartzea handitzen ari da.



# Orkestra

INSTITUTO VASCO  
DE COMPETITIVIDAD  
FUNDACIÓN DEUSTO

[www.orquestra.deusto.es](http://www.orquestra.deusto.es)